

Gure bezeroa segmentatzeko orduan irizpide demografikoa eta irizpide geografikoa izan ditugu kontuan. Esan beharra dago irizpidea edozein izanda ere, badagoela denek bete beharreko baldintza bat: 0-12 urte bitarteko haur baten kargu egotea.

Irizpide demografikoari dagokionez alde batetik lanbidean oinarritu gara, izan ere ospitaleko langileentzat dago zuzenduta gure zerbitzua: medikuak, erizainak, kirurgialariak, laborategiko langileak, administrazioko langilerentzat, harreragileak, giza baliabideetako langileak, garbitzaileak, sukaldeko, segurtasuneko, mantentze-lanetako eta abarreko langileak. etab. Denentzako dago zuzenduta, izan ere txanda desberdinak, guardiak, orokorrean suertatu daitezkeen behar desberdinak aintzat hartuko ditugu.

Bestalde, ez ditugu alde batera utzi nahi ospitaleko erabiltzaile arruntak. Ospitalera etorri behar diren edo bertan ingresatuta dauden gaixoen seme alabentzat ere bideratuko dugu zerbitzua.

Gure haurreskola, oinarritz, 0-3 urte bitarteko haurrei bideratuta egongo da, baina haur nagusiagoekin salbuespen batzuk izango ditugu. Adibidez, 12 urtera arteko umeek gure zerbitzua behar izatekotan, haientzat tailer edo irakaskuntza espezifikoa burutuko ditugu, hauek modu ludikoan gozatzeko aukera izateko.

Irizpide geografikoari dagokionez, gure zerbitzuaren kokapena Galdakao-Usansoloko Ospitalean kokatuko dugu, bertako herritarrentzat eta inguruan bizi diren pertsonentzat zein erabiltzaileentzat zuzenduta. Esan bezala, ospital publiko batean hasiko gara zerbitzua eskaintzen, orduan Galdakao-Usansoloko Ospitalea aukeratu dugu proiektua hasteko, nahiz eta geroago gure proiektua hedatu nahi dugun. Hori dela eta, bertako herritarrak dira gure zerbitzuaz gehien bat erabiliko dutenak, azken finean, bertan dago ospitalea kokatuta eta haiek dira horretaz gozatuko dutenak.

Horrez aparte, argi dago, ospitalera Bizkaia osoko jendea doala, eta guztiz gonbidatuta daudela gure haurzaindegira etortzera. Kontsultaren bat badute, edota bertan familiarren bat ingresatuta badute, arazorik gabe bertan utzi ditzakete haien haurrak. Azken finean, uste dugu, bertara doazen guraso edo pertsona guztiek eskubidea dutela haien haurrak ekartzeko, nahiz eta bertakoak ez izan edota haurreskolan izena emanda ez izan.

Haurzaindegi honek haurrak zaintzeko beharra betetzeaz gain, ospitalearen barruan komunitatearen zentzua indartzen du eta langileen ongizate orokorrari laguntzen dio.

Zerbitzuak malguak eta pertsonalizuak direnez, hartzaindegia baliabide baliotsua da langile talde guztientzat, eta bizi-kalitatea hobetzen du, bai lanean, bai etxean.

Laburbilduz, gure bezero perfila hurrengoa da:

- Ospitaleko langileak gurasoak direnak, behar espezifikoak dituztenak: ordutegi irregularrak, gaueko guardiak edo haurrak zaintzeko behar malguak izan ditzaketen langileak.
- Ospitalean ingratuta dauden haurrak: Ospitalean tratamendua jasotzen ari diren haurrak, aldi baterako hartzaindegi-zerbitzuez baliabide daitezkeenak.
- Ospitalera bisita batera, kontsulta edo urgentzia batengatik jotzen dutenak: Paziente edo erabiltzaile hauek denbora asko pasatuko dute ospitalean eta haien hurrekin batera joan behar badira, leku lasai batean uztea abantaila bat izango da, baita horretarako aukera dutela ere jakitea, etorkizunean erabili behar izango badute.